

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bidasoako fauna akuatikoa, Nafarroako Gobernuaren argitalpen berri batean ikusgai

Espezieei buruzko 68 fitxa dituen landa-gida hau Life Irekibai proiektu europarraren barnean landu da

Osteguna, 2018.eko abenduak 20

Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak “Bidasoako arroko fauna akuatikoa” izenburuko argitalpen berria aurkeztu du gaur, arro horretako ibai-ibilguzi atxikitako animalia espezie nagusiak ezagutzera emateko.

Aurkezpena gaur goizean egin da Bertizko Jaurreriko Natura Parkean, eta bertan izan dira Eva García

Balaguer, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia; Rafa Miranda Ferreira, liburuaren egilekidea, eta Luis Sanz Azcarate, Life Irekibai proiektuaren koordinatzailea GAN / NIK enpresa publikoan.

Rafa Mirandarekin batera, liburu honen egilekideak ditugu Javier Oscoz, Amaia A. Rodeles, Imanol Miqueleiz, Nora Escribano, Mariano Larraz eta Enrique Baquero, Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Fakultateko Ingurumen Biologiaren Arloko adituak. Haiekin batera parte hartu dute Nafarroako Gobernuak Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuko nahiz Nafarroako Ingurumen Kudeaketa (GAN-NIK) enpresa publikoko teknikariek. Azken sozietate hau arduratu da gida koordinatu eta editatzeaz, Nafarroako Gobernua kide duen “Ibai irekiak: Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza” deritzon proiektu europarraren barnean.

Ibaiari atxikitako faunaren ezagutzan sakontzea

Naturazaleendako landa-gida izatea da argitalpenaren helburua, ibaiari atxikitako fauna ezagutu eta ezagutza horretan sakontzea ahalbidetzen baitu.

Liburuak 23 makro-ornogabe talderen deskribapena eta xehetasunak bildu ditu fitxa espezifikotan antolatuta (sorgin-orratzen larbak, ibaietako kakalardoak, moluskuak, krustazeoak, etab.). Ornodunen atalean, hegazti, narrasti, anfibio, arrain zein ugaztunen 45 espezie bildu dira guztira. Espezie hauek ibai-ibilguzen beharra dute bizirik irauteko, beraien ziklo biologikoko etaparen bat uretan egiten dutelako edota ibai-ibilguzi lotutako biologia dutelako.



Argitarapenaren azala.

Liburua osatzen duten 200dik gora orrialdeetan, espezie bakoitzaren deskribapenarekin batera, banaketari buruzko datuak eta biologiari buruzko zein kontserbazio-egoerari buruzko zehaztapenak aurki daitezke, horren ezagutza errazten duen oinarritzko informazioa bilduz.

Life Irekibai proiektu europarrak, liburu honen argitalpena gisako ekimenen bitartez, jendarteko sentsibilizazioa eta partaidetza sustatzen ditu gure ibaietako, habitaten, funaren eta floraren zaintza hobetzeko. Zuzendari nagusiaren esanetan, “gure ibaiak zaindu eta kontserbatzea eta horiekin era egokian elkarbizitzea instituzio, erakunde, enpresa, komunitate eta pertsonen baterako ahalegin bihurtu behar da, espezie akuatikoen zein ibai-arroko habitaten mesedetan, baita mugakide dituzten herrien mesedetan ere”.

Guztira, 1.000 ale argitaratu dira gaztelaniaz eta beste 1.000 ale euskaraz, proiektuari atxikitako jarduketa-esparruan banatzeko. Liburuaren online bertsioa LIFE IREKIBAI proiektuaren webgunean eskura daiteke: <https://www.irekibai.eu/>

Gidaren aurkezpena, Life Irekibai proiektuan egiten ari den herritarren partaidetza prozesuaren Jarraipen Batzordearen bilera berri baten barruan egin da. Batzorde hau Nafarroako kantauri eremuko toki erakundeen ordezkariak, Kantauriko Konfererazio Hidrografikoak, Cederna-Garalurrek eta foru Exekutiboak osatzen dute.

Gogoratu behar da Life Irekibai proiektuak bazkideak dituela Euskadin (Gipuzkoako Foru Aldundia, URA eta HAZI Fundazioa) eta Nafarroan (Nafarroako Gobernua, GAN / NIKen bitartez), eta bakoitzaren gaitasunak eta eskuduntzak elkartzen dituztela Bidasoa eta Leitzarango ibai-arroetan kokaturiko Natura 2000 esparruetako interes komunitarioko habitat eta espezieen kontserbazio egoera bermatzeko. LIFE ingurumenerako finantza-tresna europarrak proiektu honen (LIFE14 NAT/ES/186 IREKIBAI) % 60 finantzatu du. Guztizko aurrekontua 2.999.372 eurokoa da 2020ra arte.